BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA
2019/07/08

# Hamabi artistak Zeramika Masterraren amaierako euren lanak erakusten ditue "Estekadurak-Movimientos" erakusketan, Bizkaiko Batzar Nagusietan

Bizkaiko Batzar Nagusietako erakusketa aretoak, egungo zeramikaren ezaugarri diran gaikako lurraldeetatik, lurralde teknikoetatik eta materiaren egoeretatik ibilbidea erakusten dau gaurtik aurrera, diseinuaren eta artearen artean bat egiteko asmoz. "Estekadurak-Movimientos" izenburua daroan erakusketak, Unibersidadeko Artea eta Funtzioa Zeramika Masterraren zazpigarren edizinoko, 2018-19 ikasturteko, ikasleek egindako piezen aukeraketea jasoten dau. Egile bakotxaren idiosinkrasia erakusten daben artelan heterogeneoak batzen dituan erakusketea garagarrilaren 19ra arte ikusi ahal izango da Bizkaiko Batzar Nagusietako Bilboko egoitzan.

Ana Otadui Bizkaiko Batzar Nagusietako Lehendakaria erakusketea komunikabideen aurrean aurkezteko ekitaldira etorri da gaur goizean, eta ekitaldian egon gura izan daben sortzaileetako askogaz berbetan jardun dau. Artistek euren artelanen jatorria eta esangura azaldu deutsie lurraldeko Batzarretako ordezkari nagusiari. José Mª Herrera (EHU/UPVko Artea eta Funtzioa Zeramika Masterraren irakaslea) be etorri da.

Arte garaikidean gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari dan materialetako bat da zeramikea; betidanik ulertu dan modutik haraindi, Masterrean zeramikea arte adierazpen moduan lantzen da, bideo bat, instalazino bat edo betidaniko kantinaren diseinu barria jasoten dituan erakusketa honetan ikusi daitekenez.

"Buztinen berezko ezaugarrietatik hasita suaren eragina bitarte, modelatze eta eratze prozedura desbardinetatik eta beiradura teknologia konplexuetatik igarota, edegi egin dira ikuspegi eta egiteko modu barriak, ondoriozko produktuak kokatuz eskultura eta diseinuaren arloan eta bien arteko alkargunean", azpimarratu dau erakusketaren katalogoan Carmen Marín Artea eta Funtzioa Zeramika Masterraren zuzendariak.

## Nazinoarteko oso izaera nabarmena daukan Masterra

EHU/UPVko Zeramika Masterra, Europa osoan gaztelaniaz emoten dan apurretakoa da eta, horregaitik, nazinoarteko partaidetza handiena daukanetako bat. Holan, erakusketan, Maite Barrainkua gipuzkoarragaz, Susan Bart bilbotarragaz, Jonathan Escapa azkoitiarragaz eta Paola Valeria Álvarez santurtziarragaz batera, Deisy Hernández kolonbiarrak, Mireia Serrano bartzelonarrak, Daniela Rojas txiletarrak, Luiza Christ brasildarrak, Miguel Cano santandertarrak, Agustín Contreras txiletarrak, Tania Gutiérrez perutarrak eta Gerardo Ramos burgostarrak be hartzen dabe parte. Sortzaileen jatorri aniztasunak, eta mundu osoko hainbat lekutan egindako zeramikazko egitekoaren loturak eta berezitasunak, leku bakarrean erakusteko aukerea emoten dau.

“Estekadurak-Movimientos” erakusketan, material, gai, prozesu eta azken emaitza desbardinak dagoz. Horreen aniztasunaren barri, erakusten diran artelanen izenburuek emoten deuskue: “Hodi igarokorrak” (Maite Barrainkua), “Babes-Ehunak” (Deisy Hernández), “Adierazpen idatzia” (Susan Bart), “Atalak” (Mireia Serrano), “Hemisferioak. Pasabide sakonak sailaren parte” (Daniela Rojas), “Lehenengo ariketea” (Jonathan Escapa), “Epidermiko” (Agustín Contreras), “Jaungoikoagaz berba egin gura badot” (Luiza Christ), “Txanbil” (Miguel Cano), “Ilumina. Argi-gorputzak” (Paola Valeria Álvarez), “Isiltasun eskegia” (Tania Gutiérrez) eta “Autorretratu RCK 4.3” (Gerardo Ramos).

**Ebaluau beharreko azterlanak**

Master amaierako lanak erakusten dituen ikasleak dira erakusketaren komisarioak. Joan dan martiaren 15ean Ana Otadui Bizkaiko Batzar Nagusietako Lehendakariak eta Nekane Balluerka EHU/UPVko errektoreak, Leioako Arte Ederren Fakultadeko ikasleen artelanak Bizkaiko Batzarretan erakusteko helburuz sinatu eben hitzarmenean oinarrituta egiten dan lehenengo erakusketea da.

Horrez gain, lehenengoz, euskal unibersidade publikoko ikasleen master amaierako lanak erakusten dira. Ikusleek garagarrilaren 19ra arte ikusi ahal izango ditue unibersidadeko epaimahaiak aztertuko dituan lanak; horreetako batzuk Batzar Nagusietan. Datorren apirilaren 17an, Masterreko irakasleek Agustín Contrerasen, Tania Gutiérrezen, Mireia Serranoren eta Deisy Hernándezen sorkuntza lanak balorauko ditue Hurtado de Amezaga kaleko egoitzan, herritarrentzat be zabalik egongo dan ekitaldian.

**Arte bilduma handia**

Bizkaiko Batzar Nagusiek 1985ean hasitako arte bilduma azpimarragarria daukie, eta urte bakotxean gora egiten dau, UPV/EHUko Arte Ederretako Fakultadeko sortzaile gazteen erakusketa bakotxean artelan bat erosten dauelako. Jorge Oteiza, Gabriel Ramos Uranga, Mikel Díez Alaba, Daniel Tamaño, Alfonso Gortázar eta Jesús Mari Lazkano dira Bilboko Hurtado de Amézaga kaleko 6. zenbakian dagon Bizkaiko Batzar Nagusien administrazino egoitzako bulegoetan, igarobideetan eta egongelatan ikusi daitekezan artelanak egin dituen artistetako batzuk.

Bilduman, azpimarragarriak dira XX. eta XXI. mendeetako emakume margolarien, eskulturagileen eta argazkilarien 40 artelan baino gehiago. Horrek argi eta garbi erakusten dau Bizkaiko Batzar Nagusiek artea erosteko politikan izan dauen ikuspegi bardinzale aitzindaria. Mari Puri Herrero, Juana Cima, Mertxe Olabe, Asun Goikoetxea, Abigail Lazkoz, Dora Salazar, Begoña Zubero, Damaris Pan, Lide Kaltzada edo Andrea Abalia artisten sorkuntza lanak, beste batzuen artean, ibilaldi parebakoa eskaintzen dabe emakumeek egindako euskal arte garaikidetik.

BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA
08/07/2019

# Doce artistas muestran sus trabajos de fin de Máster de Cerámica en la exposición “Estekadurak-Movimientos” en las Juntas Generales de Bizkaia

La Sala de Exposiciones de las Juntas Generales de Bizkaia muestra desde hoy un recorrido por los diferentes territorios temáticos, técnicos y estados de la materia que caracterizan a la cerámica más contemporánea con el objetivo de confluir entre el diseño y el arte. Bajo el título “Estekadurak-Movimientos”, esta exposición recoge una selección de las piezas realizadas por alumnas y alumnos del Máster Universitario en Cerámica: Arte y Función, en su séptima edición, correspondiente al curso 2018-19. La muestra, que reúne un conjunto de obras heterogéneas que revelan la idiosincrasia de cada autor y autora, se podrá ver hasta el 19 de julio en la sede bilbaína de las Juntas Generales de Bizkaia.

Ana Otadui, Presidenta de las Juntas Generales de Bizkaia, ha presentado esta mañana la exposición a los medios de comunicación y ha conversado con buena parte de los y las creadoras que no han querido perderse el acto. Los y las artistas han explicado el origen y sentido de sus obras a la máxima representante de las Juntas Generales de Bizkaia. También ha acudido José Mª Herrera, profesor del Máster de Cerámica: Arte y Función.

La cerámica es uno de los materiales expresivos más pujantes del arte contemporáneo; más allá de su concepción tradicional, en el Máster se trabaja la cerámica como expresión artística, como se refleja en esta variada exposición que incluye un vídeo, una instalación o el rediseño de un cántaro tradicional, entre otras muchas propuestas.

“Desde las propiedades de las arcillas, hasta la intervención del fuego, pasando por los diversos procesos de modelado, construcción y la compleja tecnología de los vidriados, se han ido abriendo nuevos enfoques y maneras de hacer, cuyos productos se sitúan tanto en los campos de la escultura y del diseño como en la intersección de ambos”, destaca en el catálogo de la exposición Carmen Marín, Directora del Máster de Cerámica: Arte y Función.

**Un Máster muy internacional**

El Máster de Cerámica de la UPV/EHU es uno de los pocos que se imparten en castellano en toda Europa y por ello, es uno de los más internacionales. Así, participan en esta exposición junto a la guipuzcoana Maite Barrainkua, la bilbaína Susan Bart, el azkoitiarra Jonathan Escapa y la santurtziarra Paola Valeria Álvarez, la colombiana Deisy Hernández, la barcelonesa Mireia Serrano, la chilena Daniela Rojas, la brasileña Luiza Christ, el santanderino Miguel Cano, el chileno Agustín Contreras, la peruana Tania Gutiérrez y el burgalés Gerardo Ramos. La diversidad de procedencias de los y las creadoras permite mostrar en un solo espacio las conexiones y singularidades del quehacer cerámico desde diferentes lugares del mundo.

En “Estekadurak-Movimientos” están presentes diferentes materiales, temáticas, procesos y resultados finales de cuya variedad dan idea los títulos de los trabajos expuestos: “Conductos temporales” (Maite Barrainkua), “Tejidos de protección” (Deisy Hernández), “Expresión escrita” (Susan Bart), “Fragmentos” (Mireia Serrano), “Hemisferios. De la serie Pasajes Hondos” (Daniela Rojas), “Ejercicio número 1” (Jonathan Escapa), “Epidérmico” (Agustín Contreras), “Si quiero hablar con Dios” (Luiza Christ), “Cántaro” (Miguel Cano), “Ilúmina. Cuerpos lumínicos” (Paola Valeria Álvarez), “Silencio suspendido” (Tania Gutiérrez) y “Autorretrato RCK 4.3” (Gerardo Ramos).

**Obras a examen**

El propio alumnado que expone sus trabajos de fin de master se ha encargado del comisariado de esta exposición, que es la primera que se celebra fruto del convenio de colaboración que firmaron el pasado 15 de marzo Ana Otadui, Presidenta de las Juntas Generales de Bizkaia, y Nekane Balluerka, Rectora de la UPV/EHU, con el objetivo de exponer en la Cámara Foral obras artísticas del alumnado la Facultad de Bellas Artes de Leioa.

También por primera vez, se muestran trabajos de fin de máster de alumnado de la universidad pública vasca. El público podrá contemplar hasta el 19 de julio obras que van a ser examinadas por un tribunal universitario; algunas de ellas incluso en las propias Juntas Generales. El próximo 17 de abril el profesorado del Máster valorará en la sede de Hurtado de Amezaga las creaciones de Agustín Contreras, Tania Gutiérrez, Mireia Serrano y Deisy Hernández, en un acto abierto también a la ciudadanía.

**Una gran colección de arte**

Las Juntas Generales de Bizkaia cuentan con una destacada colección de arte iniciada en 1985 y que cada año se incrementa con la compra de una obra de cada exposición de jóvenes creadores y creadoras de la Facultad de Bellas Artes de la UPV/EHU. Jorge Oteiza, Gabriel Ramos Uranga, Mikel Díez Alaba, Daniel Tamaño, Alfonso Gortázar y Jesús Mari Lazkano son algunos de los artistas cuyas obras se pueden admirar en los despachos, pasillos y salones de la sede administrativa de la Cámara Foral Vizcaína en el número 6 de la bilbaína calle Hurtado de Amézaga.

En la colección, destacan las más de 40 obras de pintoras, escultoras y fotógrafas de los siglos XX y XXI que reflejan la pionera visión igualitaria de las Juntas Generales de Bizkaia en su política de adquisiciones artísticas. Las creaciones de Mari Puri Herrero, Juana Cima, Mertxe Olabe, Asun Goikoetxea, Abigail Lazkoz, Dora Salazar, Begoña Zubero, Damaris Pan, Lide Kaltzada o Andrea Abalia, entre otras, ofrecen un recorrido único por el arte vasco contemporáneo realizado por mujeres.